

## PROIEKTUAREN IZENBURUA: EZINA, EKINEZ EGINA

### HEZKUNTZA HOBETZEN: JAKIN, ELKARRIZKETAN ARI IZATEA ETA EKARPENAK EGITEA.

#### HELBURUAK:

- Gizarte eztabaida zorrotz eta sakon bat sortzea hezkuntzari buruz.
- Herritarrek iritzi bat sortzeko aukera edukitzea hezkuntzaren gaur egungo egoerari eta hobetzeko proposamenei buruz, jarduera horretan sarturik dagoelarik gizarte eta eskola elkarte osoa.
- Partaidetza, elkarrizketa eta eztabaida barea sustatzea, eta proposamen kritiko eta sortzaileak lortzeko talde-konpromisoarekin batera.
- Jakintza eta ikaskuntza partekatzea berdinen artean
- Grina eta eztabaida sortzea hezkuntzaren gainean talde-eskubide iraunkor gisa
- Gizarte sentsibilizatzea ikusgai eginez bide eta gizarte sareen bitartez
- Parte hartzeko prototipoa sortu, beste udal batzuetan erreplika daitekena.

#### SUSTATZAILEAK:

- Udalak eta EEK

#### TALDE BULTZATZAILEA:

- Ikastetxeetako zuzendaritzak, Udal bakoitzaren teknikariak eta EEK lagun

#### DENBORALDIAK

##### Ekaina

1.- Proposamena ikastetxeetako zuzendaritzari aurkeztea, ekitaldia alkate andreak eta Eskola Kontseiluko presidente andreak iragarrita.

2.- Zuzendaritzek proposamenari ekarritakoa entzun eta jasotzea, 2017ko 3. hiruhilekoan gauzatu beharreko ekintzen diseinuari ekiteko. Udal eta EEK-ko teknikariak

##### Iraila

- Deialdia
- Egindako diseinua aurkeztea, zuzendaritzen ekarpenei jarraituz
- Balioespena edota aldaketa egokiak. Diseinu osoa
- Tratatu beharreko gaiak jasotzea prestakuntza/informazio/eztabaida/proposamenean.
  - Deialdian bidalitako dokumentuak
    - a. **Gaiak zerrendatzea eta ikastetxe bakoitzak hautatzea**
    - b. **Era orientagarrian prestatutako gaia. Infografia**
    - c. **Fitxa hautatu den gaia lantzeko**
- Talde Bultzatzailearen bileran entregatutako dokumentuak

1. **Talde Bultzatzaileari informazioa: Prozesu orokorra. Galde-sortetan jasotako metodologia , ...**
2. **Egutegia**
3. **Fitxa ikastetxe bakoitzaren ekarpenak jasotzeko: gaiak eta txostengileak**
4. **Galde-sorta irakasle eta ikasleentzat**

### 1. FASEA: IRAKASLEAK

---

## URRIA

**Irakasleek prestatutako gaiak jasotzea**

**Irakasle txostengileen bideo grabaketa**

**Osoko jarduera** irakasleekin batera udalerrri bakoitzean.

- Dinamizazioa: teknika, metodologia, baliabideak
  - i. Dokumentuak: prestatutako gaiak, bideoak
  - ii. Irakasleek egindako ekarpenen sintesia
  - iii. Ondorioak eta sintesia hizpide izandako gai guztiei buruz. TT

## AZAROA

### 2. FASEA : IKASTETXEA, IRAKASLEAK

---

Jarduera ikastetxeetan, irakasleekin. (*Ikastetxe bakoitzak antolatu beharra. Ahal den neurrian laguntzen zaie eta heziketa saio bat eskaintzen eskatzen duten ikastetxeei*)

- a. Aldez aurretik bidaltzea landuak dauden baliabideak: prestatutako gaien sintesi eta bideoak udalerrriko osoko bilkurarako. Osoko bilkurako ekarpenen bideoa eta sintesia.
- b. Dokumentuak
  - Jardueraren diseinua ikastetxe bakoitzean. Dinamizazioan, metodologia, tresneria.
  - Proposamenak irakasleen manifestua lantzeko
  - Sintesia eta hedapena

### 3. FASEA : IKASTETXEA, IKASLEAK

---

Jarduera ikastetxeetan, ikasleekin. (3 saio). Lehen Hezkuntzan, 5. eta 6. Bigarrenean, ikasle guztiak

*Dokumentuak*

- Diseinua: hiru saio ikasleekin

- Informazioa, eztabaida, proposamenak, berezko produktu bat lantzea taldetan: infografia, ikus- thinking, bideoa, pwp...)
- Baliabideak.
- Irizpideak eta ikastetxe bakoitzeko 10 onenak hautatzeko sistema (familiak, ikasleak, irakasleak): mezurik onena eta adierazpenik onena. Hautatu ostean, ikastetxea ordezkatu dutenez gero, ikastetxean bertan egindako beste proposamen baliotsu batzuk ere erantsiko dituzte

#### 4. FASEA: FAMILIAK, IGE (ALDI BEREAN)

---

##### 1º Proiektua aurkeztea ikastetxe guztietako IGEEi

Hausnarketarako dokumentuak eta ikastetxe bakoitzeko ekarpenak. IGE bakoitzak bere gain hartuko du zeregin hori. *Ekarri irakasleek grabatutako bideo guztiak, gehi prestatutako gaiak, irakasleen osoko bilkurako bideoa eta bertan egindako ekarpenen sintesia*

- EK eta Udalaren proiektua aurkeztea
- Tresneria ikastetxe bakoitzean erabiltzeko: bi bideo eta bi dokumentu labur
- Galderak eztabaidatzeko

##### 2º Familien udaleko osoko bilkura

- Deialdia hedatzea: kartelak, publizitatea
- Hasierako mintzaldia: ikasleen premiak etengabe aldatuz doan gizarte baterako. Dinamizazioa?
- Dinamizazioa manifestu bat lantzeko
- Egintza eta manifestua hedatzea

## ABENDUA

#### 5. FASEA: UDALERRIKO IKASLEAK

---

Ikasleen lanak erakustea udalerriko gunen batean. 5 onenak hautatuko dira, azken ekitaldi publikoan defendatuko eta ordezkari izango Legebiltzarraren aurrean.

Udallerriaren ordezkari izango direnez gero, hautatuek erantsiko dituzte beste proposamen baliotsu batzuk, aurkeztutakoez gain.

## URTARRILA

#### 6. FASEA: AURKEZPENA UDALETXEAN

---

**Manifestuak entregatuko dira udaletxeetan Osoko Bilkurak haien berri izan dezan eta haien atxiki dakien egoki baldin baderitzo**

**Udal prozesua ixtea. Saioa Legebiltzarrerako.** Alkate andrearen eta Eskola Kontseiluaren  
Presidentearen hitzak (2na' = 4')

- Irakasleen manifestua irakurtzea (2')
- Familien manifestua irakurtzea ( 2')
- Hautatutako 5 lanak erakustea eta ahoz defendatzea (3' - 15')
- Ondorioak eta ixtea (3')

#### **7. FASEA: LEGEBILTZARREKO SAIOA**

---

- Irakasleen manifestua
- Familien manifestua
- Ikasleen defentsa (5')

#### **8. FASEA: EBALUAZIOA**

---

- Lorpenaren adierazleak
- Hobetzeko proposamenak

### **OTSAILA**

*9. FASEA: Herritarren parte hartzearen eredu lantzea. EEKk argitaratuko du hori, autoretza ikusgarri eginez, hots, Udalarekin, ikastetxeekin, irakasle partaideekin eta zelan edo hala elkarlanean aritu diren lagun guztiekin partekatua. Argazkiak eta bideoak.*

---

1. Prozesuaren sintesia: sortu diren materialak, metodologia balioetsia, lanabesak eta ekarritako tresneria, ebaluazioa eta ikasi diren ikasgaiak. Udala eta EEK.